

Denok kazetari

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Jarduera honetan kazetari lanetan arituko zara. Guztion ahotan dagoen albiste bat kontatuko duzu, eta benetakoa zein gezurrezko albisteak sortuko dituzu.



1- Albisteak

Nola jasotzen dituzu albisteak? Zein da zure ohitura? Aldatu duzu azken urteotan? Zergatik?



Adibidez:

- *Nik, beti bezala, egunero erosten dut egunkaria, eta etxean patxadaz irakurtzen dut iluntzetan, bakarrik nagoenean.*
- *Nik orain Twitterren bidez jasotzen ditut albisteak. Oso eroso eta azkarra da. Berehala jakiten dituzu azken orduko berriak...*

2- Dimisioa

2.1- Jarraian bideo bat ikusiko duzu. Beheko hitzei eta argazkiari erreparatu eta aurreikusitu zer gertatuko den:

Erredakzioa / Dimisioa eman / Ustelkeriakasua / Azken orduko berria

Zure hipotesiak egin ondoren, ikusi bideoa eta aukeratu erantzun egokia.



Zein zen Izaroren gaurko plana?

- Etxetik erredakziora joatea, udaletxean argazki batzuk atera eta gero.
- Autoz etxetik lanera joatea, beti bezala.
- Alkatearen agerraldira joatea eta ondoren, aldizkariaren erredakziora.

Hau da Izarok irratian entzun duen berria:

- Andueza alkatea kargutik kentzea erabaki du bere herriko udalak.
- Anduezak dimisioa eman du, ustelkeria-kasu batengatik.
- Andueza alkatea prentsa aurrean agertuko da ordu-erdi barru, ustelkeria-kasu baten gaineko informazioa ematera.

Berria entzun ondoren, zera egin du Izarok:

- Udaletxera joatea erabaki du.
- Bulegora joan da segidan.
- Kazetariarengana joan da erredakziora.



2.2- Erreparatu egiturari eta bikoteka erantzun egokia eman:

Alkateak minutu gutxi barru, ordu laurden barru agerraldia egingo duela aipatu dute albistegian. Zer esan nahi du?

- Dimisioa ematearekin batera, une berean, egingo duela agerraldia alkateak.
- Agerraldia hemendik minutu gutxira egingo duela alkateak.
- Alkatearen agerraldia motza izango dela, minutu gutxikoa.

KONTUAN HARTU

“BARRU” forma gertaera bat denboran kokatzeko erabiltzen da, erreferentzia gisa oraina hartuta.

Ordu laurden barru entzungo du Izarok alkatearen azalpena.

barru-ren orde, HEMENDIK...-RA erabil daiteke

Hemendik ordu laurdenera aterako da alkatea = Ordu laurden barru aterako da alkatea

2.3- Jarraian aipatzen direnak etorkizunean gertatuko dira. Noiz, zure ustez? (minutu, ordu, egun, ... batzuk barru, hemendik ... batzuetara), eta eman titular bana. Adibidez:

*Ur gutxi dagoelako gerrak izango dira > Ur faltagatik gerrak piztuko dira **50 urte barru***

- Paperezko diruak ez du baliorik izango >

.....

- Alzheimer gaitzaren aurkako botika asmatuko da >

.....

- Pentsioak arriskuan egongo dira >

.....

- Ilargira joateko bidaiak antolatuko dira >

.....

- Gizakia 110 urte bizitzera iritsiko da >

.....

3- Denon ahotan dago

“Zerbait jende guztiaren ahotan egon” esamoldeak zera adierazi nahi du: gai jakin bat mundu guztiak komentatzen duela une honetan, gaurkotasun handikoa dela.

Idatzi labur-labur zure herrian edo inguruan jende guztiaren ahotan dagoen gai edo albiste bat zure ikaskideei kontatzeko.

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....



.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

4- Zergatik?

Irakurri berri hauek eta erantzun galderi.



Kartzelara janaria lapurtzeagatik

Roman Ostriakov kalean bizi da, ahal duen lekuan egiten du lo eta ahal duena jaten du. Orain dela hilabete batzuk, Genova hiriko

supermerkatu batean atxilotu zuten, bezero batek Ostriakov poltsikoan zerbait sartzen ikusi zuelako.


Poltsikoak arakatu eta saltxitxa-pakete bat eta gazta-zati bat aurkitu zituzten; guztira, 4 euro eta 9 zentimo balio duen janaria. Genovako tribunalak 6 urteko kartzela-zigorra ezarri zion eskale honi.

Auzia Gorenera iritsi da orain, Genovako fiskalak zigorra arintzeko eskatu zuelako, eta Auzitegi Gorenaren epaiak gizon hau aske uztea erabaki du. Gainera, beste tribunalen jokaera onartezina izan dela azpimarratu du. Gorenak dio ezin dela pertsona bat epaitu jateko zerbait hartzeagatik, jatea oinarri-oinarrizko beharra delako.

Galtza eroriak eramateagatik isuna

Duela urte batzuk oso modan egon zen galtzak erorita eramatearena. Hala, mutilek galtzontziloak bistara uzten zituzten. Moda hori oraindik martxan dago hainbat tokitan. Gauzak horrela, Hego Carolinako gobernuak erabaki du isuna jartzea hala jantzita joateagatik: 25€ lehenengo abisuan, 50€ bigarrenetan eta 75€ hirugarrenean.

Gaur egun herritar batzuek isuna jasotzen dute galtzak gerritik hiru zentimetro beherago eramateagatik, edota ipurdia erakusteagatik.



Gizon bat atxilotu dute txakur bati su emateagatik

31 urteko J.A.P.M atxilotu dute etxeko animalien aurkako delitu bat egiteagatik. Poliziaren arabera, gertakaria apirilaren 13an gertatu zen, Alacanteko Pinoso herrian, herritar batek bizkarra sutan zuen txakur bat ikusi, laguntzen saiatu eta haren jabea abisatu zuenean. Poliziak susmagarria identifikatu eta atxilotzea lortu zuen, animalia erasotzeagatik zigortua izateko. Gaur egun, oraindik ere zainketa berezia behar du maskotak.

Asturiar bat medikuaren kontsultatik kanporatu dute txapela eramateagatik

Ezin zuen sinistu. Medikuaren kontsultara joan zen alabarekin eta kontsulta barruan txapela ezkentzeagatik kanporatu egin zuten. Sendagileak kontsulta barruan txapela kentzeko eskatu zion, hala ez egitea errespetu falta zela esanez. Bezeroak ezetz esan zion eta txantxetan ari zela pentsatu zuen, baina osasun-etxetik bota zuten medikuaren aginduari ez obeditzeagatik.



Aurkitu testuetan galdera hauen erantzun posible guztiak (kontuan izan arrazoi bat baino gehiago edota arrazoi bera modu ezberdinean adierazita egon daitekeela).

KONTUAN HARTU: -t(z)eagatik atzizkia **zergatik** galderari erantzuteko erabiltzen da (kausa). Honela osatzen da: aditz erroa + -t(z)e + agatik.

Ad: Albistea zabaltzeagatik haserretu ziren lagunak, sekretu bat baitzen.

- Zergatik jartzen ditu isunak Hego Carolinako gobernuak?.....
- Zergatik kanporatu dute asturiarra medikuaren kontsultatik ?.....
- Zergatik zigortu dute italiar eskalea?.....
- Zergatik atxilotu dute Alacanteko herritarra?.....

5- Fake news

5.1- Gaztea irratiko DIDA saioko lehiaketa baten audioa entzungo duzu. Entzun bi istorioak eta jaso informazio nagusia.

1.istorioa

Nor(k)? *Murtziako F.P. emakumeak*

Zer? _____

Noiz? _____

Non? _____

Zergatik? _____

Nola? _____

2. istorioa

Nor(k)? *Herritar frantses batek*

Zer? _____

Noiz? _____

Non? _____

Zergatik? _____

Nola? _____

5.2- Esan, irratiko entzuleak egingo duen moduan, zein istorio den, zure ustez, egia eta zein gezurra. Eman arrazoiak.

- *Nik uste dut lehena dela egia. Jende askok ikasten du zahartzaroan.*
- *Bada, nik uste dut bigarrena dela egia, ez da normala, baina posible da altxor bat aurkitzea.*

.....
.....
.....

5.3- Entzun orain erantzuna. Asmatu duzu?

5.4- Nahi baduzu, hementxe dituzu bi albiste horien idatzizko bertsioa, xehetasun gehiagorekin.

2016-11-26

Murtziako 94 urteko emakume batek karrera hasi eta 75 urte beranduago lortu du Kimikako lizentzia

Fernanda Pozo Carreno izena du, 94 urte ditu eta Murtziako Unibertsitatean hasi zenetik 75 urte igaro ondoren, joan den asteartean lortu zuen Kimikan lizentziaztea. Arrakasta lortzeko sekretua “ikasteko gogoia” izan dela azpimarratu du laurogeita hamar urtetik gora dituen emakume honek. “Gogoia dagoenean, ez dago mugarik” azaldu zuen lizentzia-agiria jasotzera joan zenean. 1941. urtean hasi zituen ikasketak, baina 1949an bere ametsa “arrazoi pertsonalengatik” utzi behar izan zuen. Ikasgai bat bakarrik falta zitzaion karrera bukatzeko. 75 urte igaro eta gero lortu du ikasgai hori gainditzea. Kimika-



lizentzia agiria jasotzera gorpildun aulkian joan da Pozo Carreno andrea eta agiriarekin batera fakultateko intsignia, ikaskide eta irakasleen argazkiak eta orla historikoa jaso ditu. Bere biloba batek omenaldia egin dio Fernandari “Eskerrik asko ilusio bat errealtate bihurtzeagatik eta zuri, amona, eskerrik asko ilusioa ez galtzeagatik”.

2016/11/23

Hiritar frantses batek etxe bat herentzian hartu eta 100 kilo urre aurkitu ditu altzarietan

Hildako senide baten herentzia gisa etxe bat jaso zuen hiritar frantses bat harri eta zur geratu zen 100 kilo urre etxeko hainbat lekutan aurkitu zituenean gordeta .

Normandian, Frantziako mendebaldean zegoen etxean 500 pieza urre, 12 kiloko bi barra eta kilo bateko 37 urre-lingote aurkitu zituen herentzian jasotako etxean.

Urrearen balioa 3,5 milioi eurokoa da eta oso ondo gordeta zegoen altzarien azpian, arropa tartean eta bainugelan.

Hainbat txanpon doratu ere aurkitu zituen frantsesak, whisky botila baten kutxa barruan eta altzari baten azpian zegoen kutxa metaliko batean.



Etxearen garai bateko jabeak 1950 eta 1960 urte bitartean erosi zuen urrea eta benetakoa dela frogatzen duten agiriak ere aurkitu dituzte. Estatu frantsesak aurkitutako diruaren zati bat kenduko dio oinordekoari. Lege frantsesaren arabera, deklaratu ez zuelako legearen arabera, % 45 jaso dezakeelako.

Orain zure txanda da. Prestatu idatziz bi albiste gero gainerako ikaskideekin partekatzeko, baina horietako bat gezurrezkoa. Lehiaketa bat da. Ea zein den gehien asmatzen duena eta gezurra ondoen ezkututzen duena. Hau da, egiazkoak sinesgaitza izan behar du eta gezurrezkoak sinesgarria.



1. albiste

2. albiste

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

2- Dimisioa

Zein zen Izaroren gaurko plana?

- Autoz etxetik lanera joatea, beti bezala.

Hau da Izarok irratian entzun duen berria:

- Anduezak dimisioa eman du, ustelkeria-kasu batengatik.

Berria entzun ondoren, zera egin du Izarok:

- Udaletxera joatea erabaki du.

Alkateak minutu gutxi barru, ordu laurden barru agerraldia egingo duela aipatu dute albistegian. Zer esan nahi du?

- Agerraldia hemendik minutu gutxira egingo duela alkateak.

4- Zergatik?

Zergatik jartzen ditu isunak Hego Carolinako gobernuak? Galtza hiru zentimetro baino beherago / eroriak eramateagatik eta ipurdia erakusteagatik.

Zergatik kanporatu dute asturiarra medikuaren kontsultatik ? Txapela eramateagatik/ez kentzeagatik / medikuaren aginduari ez obeditzeagatik.

Zergatik zigortu dute italiar eskalea? Janaria lapurtzeagatik / jateko zerbait hartzeagatik.

Zergatik atxilotu dute gizona? Txakur bati su emateagatik / animalien aurkako delitu bat egiteagatik/animalia erasotzeagatik.

5- Fake news

1, istorioa

Zer? 19 urterekin hasi zituen ikasketak, 94rekin jaso du kimikako titulua.

Noiz? Gaur egun Non? Murtzian

Zergatik? Unibertsitatearen akats batengatik, 19 urte zituenean egin zuen azterketa finalari okerreko nota eman zioten.

Nola? Unibertsitatea emakumearekin jarri da harremanetan azterketa hura gainditu zuela esan eta agiria emateko.

2. istorioa

Zer? Herritar frantses batek etxea jaso du herentzian eta ikustera joan denean, 3,5 milioi euro balio duen urrea aurkitu du bertan.

Noiz? Gaur egun

Non? Frantzian, Evreux hirian Zergatik?

Nola? Antza, etxea herentzian utzi dion pertsona diruz sobrante zebilen.